

## XEDAPEN OROKORRAK

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

### 5062

*EBAZPENA, 2013ko urriaren 24koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko idazkari nagusiarena, Arkitektura Goi Eskola Teknikoko Kalitate Batzordearen arautegian egin-dako aldaketa onartzeko dena.*

Arkitektura Goi Eskola Teknikoko Kalitate Batzordearen gaur egungo arautegia UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2011ko urriaren 24ko erabakiaren bidez onartu zen (2011ko azaroaren 21eko EHAA).

Eskolako Batzarrak, 2013ko uztailaren 24ko bileran, onartu egin zuen aipatutako 4. artikulua aldatzea, batzordearen osaerari buruzkoa.

Aldaketa hori bat dator Ikastegietako Kalitate Batzordearen Oinarrizko Arautegiko 4. artikulua, Kalitate Batzordearen osaerari buruzkoak dioenarekin (2010eko uztailaren 21eko EHAA), eta Lege Zerbitzuaren txostena aldekoa da.

Ikastegietako Kalitate Batzordearen Oinarrizko Kalitate Batzordeen Oinarrizko Arautegiak honakoa dio 2.2 artikuluan (2010eko uztailaren 21eko EHAA): «Ikastegiko Kalitate Batzordearen Araudia behin betiko onartzea Gobernu Kontseiluari dagokio, Ikastegiko Batzarrak halaxe eskatuta, eta dagokion legezketasun txostena aurkeztu ondoren. Idazkaritza Nagusiak (eskuordetuta) onartuko ditu araudiak. Onartzeko, alabaina, araudiek aldeko txosten guztiak izan beharko dituzte eta Gobernu Kontseiluko kide bakar batek ere edo Ikastegiko Batzarreko kideen % 15ek ez dute espresuki eskatu beharko txostenak Gobernu Kontseilura eramatea. Onartuz gero, Gobernu Kontseiluari jakinarazi beharko zaio».

Horregatik guztiatik, alde aurretik 2013ko urriaren 10eko Gobernu Kontseiluari txostena igorrita, ondokoa

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ontzat ematea Arkitektura Goi Eskola Teknikoko Kalitate Batzordearen Arautegiko 4. artikulua aldaketa. Artikulu horrek honakoa esango du aurrerantzean:

«4. artikulua.– Osaera.

1.– Hauek izango dira Kalitate Batzordearen osakideak:

a) Batzordeko burua Arkitektura Goi Eskola Teknikoko zuzendaria izango da, edo hark bere ordezkari izendatutako pertsona.

b) Gradu zuzendariordea. Halako kargurik ez balego, erantzukizun hori daukan zuzendariordea.

c) Arkitektura Saileko irakasle eta ikertzaileen bi ordezkari, ahal dela jakintza arlo desberdinetakoak, eta ikastegian eskolak ematen dituzten gainerako sailtako irakasle eta ikertzaileen ordezkariak, sail bakoitzetik bat, zuzendaritzak hautatuak ikusita ikastegiko sailen eta sail atalen proposamenak. Ahalegina egingo da irakasle eta ikertzaile horiek zuzendaritzako kideak izan ez daitezen.

d) Graduako koordinatzailea, egonez gero. Halako kargurik ez badago, ikastegiko irakasle eta ikertzaileen ordezkari bat izango da batzordekidea, bertan eskolak ematen dituen eta, ahal dela, esperientzia edo arduraren bat daukana gradua koordinatzeko lanetan. Batzordeko kide hau ikastegiko zuzendaritza taldeak izendatuko du.

e) Administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat, ahal dela kalitatearen arloan arduraren bat daukana.

f) Ikasleen ordezkari bat, ikastegiko Ikasleen Kontseiluak proposatua.

g) Ikastegiko administratzailea.

Ahalegina egingo da gizonen eta emakumeen kopurua orekatua izan dadin ikastegiko Kalitate Batzordean.

2.– Batzordeko burua ikastegiko zuzendaria izango da, edo hark bere ordezkari izendatutako pertsona. Ikastegiko Kalitate Batzordeak berak erabakiko du zein batzordekide izango den batzordeko idazkaria.

3.– Ikastegiko Kalitate Batzordearen sorrera eta kideen izendapena zuzendaritzak proposatuko du, Eskolako Batzarrean.

4.– Batzordeko kideen izendapena lau urterako izango da. Ikasleen ordezkariak, berriz, bi urterako izendatuko dira, Ikasleen Kontseiluaren proposamenaz bat baina epe hori luzatu ahal izango da.

Batzordeko kideek jarraituko dute kide izaten hautatuak izan ziren taldekoak izateari utzi arte, eta orduan automatikoki utziko diote kide izateari.

Ez da beharrezkoa Eskolako Batzarrekoa izatea Kalitate Batzordeko kidea izateko.

Ikastegiko Kalitate Batzordearen irizpideek eta jardunak jarraipena izan dezaten, kideetako batzuk baino ez dira aldatuko batzordea berritzen den bakoitzean, eta hori bi urterik behin izango da. Zuzendaritzako ordezkariak, AZPkoen ordezkaria eta ikastegiko administratzailea aldatuko dira zuzendaritza aldatzen denean. Salbuespen moduan, irakasle eta ikertzaileen ordezkarien erdia batzordea eratu eta handik bi urtera aldatuko dira lehenbiziz.»

Bigarrena.– Agindua ematea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko Arkitektura Goi Eskola Teknikoko Kalitate Batzordearen Arautegian egindako aldaketa. Aldaketa hau argitaratzen den egunean bertan sartuko da indarrean.

Leioa, 2013ko urriaren 24a.

Idazkari nagusia,  
JOSÉ LUIS MARTÍN GONZÁLEZ.